

Ohorea, itzala



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Uda iritsi da: zapla, muturrean! Hogeita hamar gradu erreetatik gora ibilita, kiskali gaitu. Baita itzaletan harrapatu duena ere. Bero saparen haize sargoriak itzala ere txigortzen du. Ohore handiena duen zuhaitzaren itzala izanagatik ere, erre!

Izan erre, nork ez du zuhaitzaren itzala maite? Maiz, zuhaitza bera baino gehiago estimatzen dugu bere itzala. Noiznahi epaitu, moztu eta merke asko emango genuke zuhaitza, baina sanferminetako eguzki lamatan bere itzal muttur hori garesti asko ordainduko...

Zuhaitzen balioaren berri ez dugulako. Hutsaren hurrengo zaizkigulako... erromantiko, bukoliko eta mainontzi gaudenean izan ezik. Basoan, mendian,



GELPIGM 22-CC BY SA

erreka bazterrean... Hor kikiltzen gara zuhaitzak nor badirela aitortzeraino. Kale kantoian, etxe aldamenean, espaloi arteko txokoan aitortza hori nekezagoa zaigu.

Bada, Doug Kelbaugh arkitekto laudatuak, AEBetako etxeek dirutan duten balioaren kalkuluan zuhaitzek nolako

eragina duten aztertu du. Eta emaitza aizkorakada latza da zuhaitzak gutxiesiten dituztenentzat: zuhaitz batek etxearen balioari 6.300 euro eransten dizkio. Eta, deskuiduan, etxea zuhaitz ilaraz jantzitako kale batean badago, 20.000 euro gehiago balio du. Zuhaitzen ohorea eta itzala. ■

IRAKURLEAK ✉ GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba, pare bat galdera dut zuretzat:

1. Ba al duzu sendabelarren inguruan erreferentziazko zat jotzen duzun libururik?

2. Egur lanketa ikastaroetan entzun dut "intxaur beltza" eta "intxaur zuria" bereizten direla. Beltzak gihar asko du eta eskuz lantzeko oso zaila omen, zuriak berriz zurgizena gehiago. Biak "bertakoak" omen dira, beraz, intxaur beltz hori ez da amerikarra izango. Nire galdera hurrengoa da: bertako intxaurren artean (*Juglans regia*) bi mota horiek bereiziak al daude -aldaera desberdinak edo- ala intxaur bakoitza mundu bat da gihar/zurgizen proportzioan?

Andoni Urteaga (Idiazabal)

Kaixo Andoni. Berandu nator erantzunarekin, barkatu; liburu berria bukatzen buru-belarri aritu naiz eta galdera mordoxka bazterrera utzita izan dut. Ea pixkanaka erantzuten dizuedan.

Sendabelarrei buruzko liburuei buruz, zalantzarik gabe nik ezagutzen dudan onena Pío Font i Quer botanikari katalanarena da. Euskal Herrikoarik ez dut ezagutzen horren maila duenik.

Intxaurren dela eta: jendeak dio intxaurrek badirela beltzak eta zuriak, noski beti ere *Juglans regia* espeziean (intxaur amerikarra, badakizu, *Juglans nigra* da; hori bai beltza...). Nik uste dut intxaurren bakoitza beti duela giharrari kolorea emateko joera; hori zuhaitz askoren zuretan ikusi daiteke. Gihar hori beltz-beltz egitea, nire ustez, beste gauza batek eragiten du: hezetasunak. Nik esango nuke etxe inguruetan, bideetan... mugarrotzen diren intxaurren dutela beltzen azaltzeko joera. Beraz, eta hau nire teoria soila da, kolore beltza bi aldagairen esku egongo litzateke: zuhaitzaren adina eta zaurietatik barrena izerdiaren tutuei segika goiko zaurietatik beheko barrenean sartzen den hezetasuna...